



2025SPLE0001  
1.bilera: OHIKOA 2025/01/30

## UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

BILERA ZK.: 2025/01  
EGUNA: 2025/01/30  
HASIERA ORDUA: 19:00  
AMAIERA ORDUA: 19:50  
TOKIA: Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoa.

### **BERTARATUAK:**

Alazne Txurruka Allika, alkatea.

### **EAJ-PNV udal taldea:**

Asier Urain Buenetxea. (Telematikoki)

Monica de Prado Paniagua.

Jon Riaño Ojanguren.

Anton Garay Berezibar.

Ainhoa Urbieta Egaña.

### **EH Bildu udal taldea:**

Gilen Garcia Boyra.

Itziar Irizar Beristain.

Antxoka Elorza Altuna.

Oihana Irusta Lazkano.

Aritz Larrañaga Unanue. (Telematikoki)

Edurne Aristi Careaga.

### **Orain Deba udal taldea:**

Isidro Aristi Oruezabal.

**Idazkaria:** Jose Luis Salaberri Iñarra.

## **ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK.**

### **1.- Aurreko bilkurari dagokion aktaren zirriborroa onartzea, hala badagokio.**

Udalbatzari aurkeztu zitzaion, onar zezan, 2024ko abenduaren 19an eginiko osoko bilkuraren ohiko bileraren akta.

Alkateak galdetu zuen ea inork ba ote zuen zerbait esateko aktaren harira, eta Gilen Garciak azaldu zuen aktan aipatu zen bezala jasota zegoela, baina 4. aztergaiari, alkateak aurrekontuen azalpenaren 4. paragrafoan hau jasotzen zela «Diru-sarrerari dagokienez, ... Foru Funtsetatik aurrekontuaren %53 jasoko dugu, 5.401.649 euro.» Baina, bilkurara ekarritako dokumentazioan agertzen den zenbatekoa, kontu-hartzailearekin egiaztatu zuena, beste bat zela, hain zuzen, 4.879.233 euro, eta galdetu zuen desberdintasun hori nondik zetorren.

Alkateak erantzun zio une horretan ezin ziola argitu nondik zetorren, begiratuko zutela, eta zuzendu behar izanez gero, zuzenduko zela.

Bozketa egin ondoren, Udalbatzak, aho batez, onartu zuen 2024ko abenduaren 19an egindako osoko bilkuraren bileraren akta.

### **2.- Alkatetzaren dekretuen kontrola.**

Alkateak galdetu zuen ea inork zerbait esateko ote duen Alkatetza dekretuen harira.

Gilen Garciak, 582/2024 «EZ ONARTZEA aurkeztutako obra-amaierako dokumentazioa eta abal itzulketak obrak osorik amaitu arte: Calbeton zumardia 2, 3, 4 eta 5eko fatxadak energetikoki birgaitzeko obra.» kontutan hartuta eraikinaren zati bat publikoa dela, xehetasunak eskatu zuen.

Alkateak erantzun zion Dekretu hori alde egin zuen aparejadoreak eginiko txosten baten ondorioz egin zela, txosten hori transpapelatuta gelditu zen, eta, horregatik Dekretua abendukoa zela, eta lan batzuk bukatu gabe zeudelako ez zela onartu obra-amaierako dokumentazioa. Eraikin horiek azpiko aldeak Udalarenak direla, %17a inguru, eta bukatu gabe gelditu ziren lanak, juxtu zirela etxeben gaineko kable guztiak, telefonoarenak eta argindarrenak, bistan gelditu zirela, eta portaletako eta azpialdeko harriak garbitu gabe utzi zituztela. Horrela, obra bukatutzat jotzen bazuten ere, Udalarentzat horiek bukatu gabe zeunden, hainbat gauza falta zirelako.

Gilen Garciak galdetu zuen Dekretua egin zen garaian egoera berdina ote zen, eta Alkateak erantzun zion obrak oraindik ere guztiz amaitu gabe zeudela, harriak arearekin garbitu behar zutela, eta oraindik egin gabe zegoela.

Ez zen egon galderarik edo iradokizunik gehiago, eta Udalbatzak jakinaren gainean geratu zen.

### **3.- Vialine enpresak kudeatutako 2024ko trafiko isunei buruzko Alkatetza dekretuen kontrola.**

Alkateak galdetu zuen galderak edo iradokizunak ote ziren gai honen harira.

Ez ziren egon galderarik edo iradokizunik, eta Udalbatzak jakinaren gainean geratu zen.



2025SPLE0001  
1.bilera: OHIKOA 2025/01/30

#### **4.- Oihana Irusta EH Bildu udal taldeko zinegotziaren karguari uko egitearen berri hartzea.**

Alkateak azaldu zuen EH Bildu udal-taldeko zinegotzia Oihana Irusta Lazkanok 2025eko urtarrilaren 13an aurkeztutako idatziaren bidez jakinarazi zuela karguari uko egiteko erabakia arrazoi pertsonalengatik. Araudiak agintzen duela horren berri eman behar zaiola Osoko Bilkurari eta ondoren Hauteskunde Batzordera igorri behar dela, hark zerrendako hurrengoaren aldeko kredentziala eman dezan, eta, azken horrek, bete beharreko formaltasun guztiak bete ondoren Osoko Bilkuraren aurrean karguaz jabetuko dela. Hortaz, hau tramite hutsa zela, legeak hala eskatuta.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu zen.

#### **5.- Partaidetzako aurrekontuetarako konpromiso politikoaren berri ematea.**

Gaiaren azterketa hasi aurretik, Alkateak argitu zuen akats bat zegoela puntuaren enuntziatuan, eta ez zela «*konpromiso politikoaren berri ematea*», baizik eta «*konpromiso politikoa onartzea*.»

Azalpen horren ondoren, konpromiso politikoaren testu irakurri zuen:

*«PARTAIDETZAZKO AURREKONTUAK 2025.*

##### *KONPROMISO POLITIKOA*

*Partaidetzazko aurrekontuen prozesua aurrera eraman ahal izateko, Debako Udalean ordezkaritza politikoa dugun alderdiek (EAJ, EH Bildu eta Orain Deba) honakoa adostu dugu:*

- 1. Prozesuaren oinarriekin bat egiten dugu: batzarrean aurrekontuaren atal batzuk herritarrekin egindako partaidetza prozesu bidez eztabaidatu eta erabakiko direla adostu dugu.*
  - a. 200.000 euro herritarren eskura jarriko dira hurrengo bi urteotan (2026-2027) egingo diren inbertsioak aukeratzeko. Prozesua 2025ean zehar burutuko da, baina bertatik ateratako emaitzen exekuzioa hurrengo 2 urteetan zehar burutuko da.*
- 2. Prozesua erabakitzailea izango da zentzu honetan, herritarrek erabakiko dutena osoko bilkuran onartzeko konpromisoa hartzen dugu. Ez da partaidetza kuotarik ezarriko, izan ere, lehen aldiz burutuko da partaidetzazko aurrekontuen prozesu bat Deban.*
- 3. Inbertsio handiek zein txikiek tokia izan dezaten, aurrekontu partidaren dirua bi multzotan antolatuko da. Lehenengo multzoan 150.000€ko aurrekontua izango da, eta bertan 18.000€ eta 100.000€ arteko proposamenak bilduko dira; bigarren multzoan, aldiz, 18.000€ bitarteko proposamenak bilduko dira, eta honek 50.000€ko aurrekontua izango du. Jasotzen diren proposamenen diru zenbatekoak Debako Udalak gordetako aurrekontu partida gainditu dezake. Izan ere, kopuru hori gainditu beharra dago ondoren bozketa bat abiatu ahal izateko.*
- 4. Itziarren eremurako egindako proposamenak ez dira prozesu honetan kontuan hartuko, eta horrela komunikatuko zaie hasieratik herritarrei. Hala eta guztiz ere, udalak*

*konpromisoa hartzen du Itziarrentzat egindako proposamenak Auzo-udalari helarazten. Dena den, Itziarreko herritarrek prozesurako proposamenak egin eta proposamenen bozketan parte hartzeko aukera izango dute Debako beste herritarrek bezala.*

5. Alderdi politikoetako ordezkariok prozesuko lan mahaian eginkizun hauek beteko ditugula adostu dugu:

a. *Herritarrek proposamenak egiteko epea zabalduko da urtarrilaren amaieratik otsailaren erdialdera bitarte. Aldizkari bat helaraziko zaie Debako herritarrei parte hartze prozesuaren nondik norakoak azaltzeko eta lehenengo faseko batzar ireki, ekitaldi zein proiektuen erakusketa data eta lekua jakinarazteko.*

b. *Prozesuaren gidaritzarako berme batzorde herritarra osatzeko konpromisoa hartzen dugu. Berme batzorde hau herriko eragileek eta udal teknikariek osatuko dute. Guztira Debako 12 herritar inguru izango dira Berme Batzordeko partaideak. Horretaz gain, 2 udal teknikarik ere osatuko dute berme batzordea.*

c. *Berme Batzordean onartuko dira jasotako proposamenak lehenesteko irizpideak. Talde politikoek ez dugu erabaki horretan parte hartuko.*

d. *16 urtetik gorako herritarrek modu arruntean parte-hartzeko aukera izango dute. Baina, proposamen fasean zein bozketa fasean 6 urtetik gorako herritarrak parte hartzeko aukera izango dute. Adin txikikoen parte hartze egokia bermatzeko asmoz, eskolekin eta, behar izatekotan, gazte lekuarekin egingo da lan. Eskoletan proposamenak biltzeko lanketak egingo dira bertako irakasle, zuzendari edota ikasketa buruekin. Bozketa fasean datuen babeserako legea betetzeko, adin txikikoentzat euskarri paralelo bat sortuko da. Dena den, bozkatzeko, proposamen zerrenda bera izango dute haurrek eta Debako beste herritar guztiek.*

e. *Informazioa emateko helburuarekin, udal talde guztiei aurkeztu zaie fase bakoitzari lotutako honako dokumentazioa: lehen fasean, proposamenen inguruko zerrenda ordenatua eta bere analisia; bigarren fasean, berme batzordeak lehenetsitako proposamenak; azken fasean, bozken emaitza.*

f. *Informazioa emateko, fase bakoitzari lotutako dokumentazio hau aurkeztuko zaie udal-talde guztiei: lehenengo fasean, proposamenen zerrenda ordenatua eta horien azterketa; bigarren fasean, berme-batzordeak bozketa faserako lehenetsitako proposamenak; azken fasean, bozketen emaitza.*

g. *Aurten garatuko den aurrekontu parte hartzailean erabakitako proposamenen jarraipena egiteko konpromisoa hartzen dugu: proposamenen egoera eguneratuko da eta herritarren esku jarriko da.*

➤ *2025. urtearen amaieran, 2026. urtean martxan jarriko direnak adostea udal taldeekin, eta ondoren, herritarrei komunikatzea aurrekontuak onartzearekin batera*

➤ *2026ko ekainean, jarraipen lan bilera eta herritarrei proiektuen egoeraren berri eman. Egin direnak, martxan daudenak, atzerapena daramatenak,...*

➤ *2026ko azaroaren hasieran, 2027. urtean martxan jarriko direnak adostea udal taldeekin, eta ondoren, herritarrei komunikatzea aurrekontuak onartzearekin batera.*

➤ *2027ko urrian, jarraipen lan bilera eta herritarrei proiektuen egoeraren berri eman. Egin direnak, martxan daudenak, atzerapena daramatenak,...*



2025SPLE0001

1.bilera: OHIKOA 2025/01/30

➤ *2027ko azaroan, lehen aurrekontu parte hartzaileen inguruko balorazioa egin eta ondorioak atera datozen urteei begira.*

*h. Aurtengo erronka izango da komunikazioa indartu eta herritarrei ahalik eta baldintza egokienak bermatzea parte hartzea zabaltzeko.*

*i. Prozesuan zehar desadostasunik izanez gero, horiek komunikatu eta kudeatzeko borondatea adierazten dugu. Zalantza edo desadostasun baten aurrean aholkularitzarekin harremanetan jartzea izango da lehen urratsa, eta teknikari hauekin adostuko da desadostasuna kudeatzeko prozedura.»*

Gilen Garciak azaldu zuen hiru ekarpen egin nahiko zukeela, alde batetik, ortografiaren aldetik, 4. puntuan « *Itziarren eremurako ...*» izan beharrean, « *Itziarko eremurako ...*» edo izan beharko zukeela, eta « *udalak konpromisoa hartzen du Itziarrentzat egindako proposamenak ...*», izan beharrean « *Itziarrerako ...*» izan behar zela, hau da norentzat izan beharrean, norako. Eta esaldi bereko bukaeran, « *Auzo-udalari helarazten*» izan beharrean, « *helarazteko*» izan beharko zukeela; eta, lerro berean, « *Dena den, Itziarreko...*» izan beharrean, « *Dena den, Itziarko...*».

Bestalde, adierazi zuen EH Bildu taldeak bat egiten zuela Konpromiso Politikoen dokumentuarekin, eta aldeko bozka emango zutela, aurrekontuen atal batzuk partaidetza bidez onartzea ondo ikusten dutela, kultura partehartzailean sakontzeko beharra ikusten dutela, herritarrak ahaldunduz eta administrazio eragile herritarren arteko lankidetzat sustatuz. Aztikerren proposamenari ekarpen batzuk egin zizkietela eta onartu direla

Hala ere, Artikerrei mezu bat bideratu zutela, Alkatea kopia jarrita, azken finean dokumentuaren azken paragrafoan jasotakoari jarraituz. Mezu horretan adierazten zutela dokumentuarekiko aldeko jarrera, baina hainbat atal ere adierazten zutela emandako hasiera dela eta. Ondoren, irakurri zituen atal horiek:

*«Hala ere, prozesu honi hasiera emateko moduarekiko erabateko desadostasuna adierazi nahi dugu, izan ere, dokumentuan bertan jasotzen diren hainbat atal eta edo konpromiso hautsiz hasi dute prozesu hau udal gobernuko kideek:*

*1. Konpromiso dokumentua onartu aurretik eman da prozesuaren berri, prentsaurreko eta eskuorri bidez:*

*Astlehenean izandako bilera informalean gai hau aipatu genuen eta prentsaurrekoa eta eskuorri banaketa zertxobait atzeratzea eskatu. Ez zitzaigun erantzun eta ondoren medioetatik jakin behar izan dugu honen berri. Jokabide hau ez zaigu inondik inora zintzoa iruditzen eta konpromisoen dokumentuan jasotakoaren aurkakoa dela iruditzen zaigu, izan ere, 5.a atalean jasotzen da: "... Aldizkari bat helaraziko zaie Debako herritarrei" hau da, etorkizuneko zerbait bezala, dokumentu hau behin onartuta.*

*2. Udalerri ikuspegiari dagokionez:*

*Itziarko Auzo Udalarekin inolako lanketarik egin ez izana ez dugu begi onez ikusten. Aurrekontu partehartzaileen inguruko lehen bileran hau aipatu bagenuen ere, muzin*

*egin eta gaiari ez heltzea erabaki duzue. Eskuorrian jasotakoa horren adibide da.*

*Gure ustez Itziarko Auzo Udalarekin elkarlana sustatu beharko litzateke, baita Auzo Alkatearen presentzia bermatu ere. Partaidetza politikoaz hitz egiten ari bagara nola da posible udalerrria osatzen dugun bi administrazioen arteko elkarlanik ez egotea?*

*Konpromisoen 4.puntuan dio: “udalak konpromisoa hartzen du Itziarrerako egindako proposamenak Auzo Udalari helarazteko. Dena den, Itziarko herritarrek prozesurako proposamenak egin eta proposamenen bozketan parte hartzeko aukera izango dute”.*

*Eskuorrian ordea, horrela dio: “ADI! Proposamenek Debako erdigunera mugatu behar dute (Itziar, Lastur eta gainerako auzoak kanpo)” eta, gazteleraz, “AVISO: Las propuestas deben centrarse en el núcleo urbano de Deba (exceptuando Itziar, Lastur y demás barrios rurales)”.*

*o Eskuorrian jasotakoarekin Itziarko Auzo Udalaren lurralde eremurako proposamenik ezin dela egin ulertzen da. Oso jarrera zurruna iruditzen zaigu, dokumentuan ez baita hori jasotzen.*

*o Itziarko Auzo Udala entitate juridiko-administratiboa da eta lurralde zehatz batean eskumen batzuk ditu. “Exceptuando Itziar, Lastur y demás barrios rurales” baieztatpena baztertzailera iruditzen zaigu eta modu txukunagoan jaso litekeela uste dugu. Adibidez: Auzo Udalaren lurralde eremua edo ámbito territorial de Auzo Udala/Entidad Local Menor”.*

*o Gaztelerazko bertsioan “exceptuando” hitzak gaizki ulertura garamatza gainera, “excluyendo” beharko luke, izan ere, Debako herriguneaz gain, Itziar eta Lasturren ekarpenak egin daitezkeela dirudi. Zoritxarrez, ez dugu ekarpen hauek egiteko aukerarik izan, ez baitugu eskuorri honen berri izan argitaratua izan den arte.*

*o Auzo Udalaren eremuan bizi diren herritarrak Deba udalerriko herritarrak dira; prozesuan parte hartzeko haien eskubidea bermatu dadin, Deba herriguneko herritarrek jasotzen duten informazio berbera jaso behar dute.*

*Zergatik erabaki du udal gobernuak Auzo Udaleko eremuan eskuorrien banaketa ez egitea?*

*Gogorarazi nahi dugu pasa den asteleheneko bilera informalean hau horrela egitea zuzena ez zela adierazi geniela Alkate eta gobernuak kideei.*

### *3. Konpromisoen dokumentuko 5.c atalari dagokionez:*

*Horrela jasotzen da: “Berme Batzordean onartuko dira jasotako proposamenak lehenesteko irizpideak. Talde politikoek ez dugu erabaki horretan parte hartuko.”*

*Ados gaude atal honetan jasotzen denarekin, baina ondo legoke onartutako irizpideak zeintzuk diren edo izango diren jakingo bagenu.*

### *4. Konpromisoen dokumentuko 5.h atalari dagokionez:*

*Horrela jasotzen da: “Aurtengo erronka izango da komunikazioa indartu eta herritarrei ahalik eta baldintza egokienak bermatzea parte hartzea zabaltzeko.”*

*Nola bermatu nahi ditu udal gobernuak herritarrekiko baldintza horiek, ez badira gai izan zerbait argitaratu baino lehenago herritarron ordezkari garenokin partekatuzko?*



2025SPLE0001  
1.bilera: OHIKOA 2025/01/30

##### 5. Konpromisoen dokumentuko 5.i atalari dagokionez:

*Horrela jasotzen da: "Prozesuan zehar desadostasunik izanez gero, horiek komunikatu eta kudeatzeko borondatea adierazten dugu. Zalantza edo desadostasun baten aurrean aholkularitzarekin harremanetan jartzea izango da lehen urratsa, eta teknikari hauekin adostuko da desadostasuna kudeatzeko prozedura."*

*Pasa den asteleheneko bilera informalean gure zalantza eta desadostasunak adierazi genituen, baina udal gobernua aurrera jotzea erabaki du gure iritzia kontuan hartu gabe. Konpromiso honetan jasotakoa ez da bete, izan ere, aholkularitzari ez zaio gai hauen inguruan berri eman, eta horrek eraman gaitu gai guzti hauen zerrendatzea eta azalpena egitera.*

*Aholkularitzaren posizionamendua jakin nahi dugu aipatu dugunaren inguruan.»*

Irakurri ondoren adierazi zuen iruditzen zaiela prozedura kontua dela, albiste on bat emateko nahiarekin kontraesanean ez dagoena, baina albistea emateko nahi horrek ez zukeela estali beharko euren egin zituzten ekarpenak aintzat ez hartzea.

Alkateak erantzun zion berak era hainbat gauza argitu nahi zituela. Batetik, aurrekontu partehartzaileak 2025eko aurrekontuetan jasota daudela, hau da ez direla atzoko kontua. 2024ko azaroaren 12an izan zutela Aztikerrekin bilera ordezkariak duten alderdi guztiak, eta bertan azaldu zela prozesu guztia nola izango zen. Abenduaren 11n eragileen zerrenda igorri zitzaizela Aztikerrekoei, eta abenduaren 17an beste bilera egon zela, Zoom bidez, eta puntu gehienak hor adostu zirela.

Aztikerrekoei bidalitako mezua Osoko Bilkuraren bilera hasteko baino ordu erdi lehenago jaso zutela, eta sakon irakurtzeko astirik izan ez bazuen ere, gauza batzuk aipatu nahi zituela. Konpromisoen dokumentuan jasotzen dela aldizkari bat helaraziko zaiela herritarrei, eta eskuorri bat izan zela etxeetan banatu zena, eta otsailean argitaratuko den aldizkarian jasoko zela horren inguruko informazio zabala eta zehatza. Egia zela EH Bilduko ordezkariak astelehenean izandako bilera eskuorriaren banaketa atzeratzea proposatu zutela, baina ezinezkoa zela, alde batetik datak ez zituelako udal gobernua ezarri, Aztikerrek ezarri zituelako, denon adostasunarekin; eta bestetik, eskuorria inprentan zegoelako, eta Gilenek horren berri asteartean izan zuela, bilera egunaren arte ez bazuen ezer esan.

Itziarko Auzo Udalarekin inolako lanketa ez dela egin inguruan, Itziarko auzo alkatea bileretarako deia jasotzen duela, eta korreo bat bidali zuela horren inguruan berririk ez zuela adieraziz, eta guztiaren berri eman ziola. Uste zuela bazuela informazio nahikoa baina horrela ez ba da izan, publikoki barkamena eskatzen zuela, baina prozesuaren nondik norako guztiak jakinarazi zitzaizela. Eta Itziarren eskuorria zergatik ez den banatu galderari buruz, hori ere Aztikerrekin adostutakoaren ondorio izan zela. Eskuorria udalerrri osoko etxebizitzetara igorri ala ez inguruan udal gobernua ere zalantzak izan zituela. Itziarko biztanleak badutela proposamenak egiteko eta bozketan parte hartzeko eskubidea, baina proposamenak, eta hori ere guztion artean adostutako zerbait dela, Deba kaskoari buruzko proposamenak izan beharko direla. Horregatik ez zitzaizela oso normala izango zenik Itziarren ere etxez-etxe banaketa egitea,

baina Itziarko Arreta Zerbitzuan eskuorriak eta postontzia badaudela, eta hori prentsa bidez ere jakinarazi zela, eta hurrengo astelehenean bilera irekia egingo zela eta bertan azalduko zirela prozesuaren puntu guztiak.

Herritarrekiko baldintzak nola bermatu nahi den, eskuorria argitaratu baino lehenago herritarren ordezkariekin ez bada partekatu galderari erantzunez, adierazi zuen eskuorrian dagoen informazioa ez dagoela inorekin partekatzeko beharrik, informazio hori konpromisoen dokumentuan jasotzen denaren laburpena baino ez delako. Aitortu behar zuela *“Itziar, Lastur eta gainerako auzoak kanpo”* aipamenaren ordezkari egokiagoa izango zela *“Itziarko Auzo Udala”* aipatzea, horrekin ados zegoela, baina beste guztiarekin ez.

Eta *“exceptuar”* eta *“excluír”* sinonimoak direla. *“Exceptuar: excluír a alguien o algo de la generalidad de lo que se trata o de la regla común. Excluír: Quitar a alguien o algo del lugar que ocupaba o prescindir de él o de ello.”*

Gilen Garciak erantzuna eskertu zuen, eta azaldu zuen berak esandakoa kritika moduan hartu beharrean gaia argudiatzeko saiakera egin zutela, iritzien kontrastea zela, eta asmoa ez zela inor mintzea. Kontuan hartzea berak asteartean eskuorria jaso zuenean, ikusi zuela dagoeneko inprimatuta zegoela eta ez zutela izan ekarpenik egiteko aukerarik eta kontrastatu izanez gero, aipatu diren akatsak ez liratekeela egongo. Denok horren berri zutelarekin ados daudela, denok hartu zutela gaia serioa eta iruditzen zaiela konpromiso politikoa joratu behar zela. Egutegiari buruz, aipatu dela azaroan ezarri zela, baina, eurek, urtarrilaren 24an jaso zutela, eta 27an egin zutela lan bilera, eta adostasuna azaldu zutela egutegiarekin, baina iruditzen zitzaizela azkarregi ez ote zen Plenotik pasa behar zela kontutan hartuta. Ez duela uste udal gobernua eskuorri eta argitaratzen duen guztia eurekin kontrastatzeko beharrik duenik, baina, gaia hau partaidetzako gaia dela, eta partaidetza politikoei buruz hitz egiten bada, mahai bat eratu bada horretarako, eta abar, ordezkari politikoen diren heinean parte hartu nahi dutela. Hori dela euren ikuspuntuan, eta ikusi zutenean praktikan joera hori gailentzen dela eta udal gobernua euren egutegiarekin aurrera jarraitzen zuela nahiz eta eurek esan hobe zela zertxobait atzeratzea zerbait adierazteko beharrean sentitu direla. Azken finean partaidetzak dakarrena dela tarte eman behar zaiela bestei, ez bakarrik euren iritzia adierazteko, baizik eta elkarrekin erabakitzekeo tarteak eskaini behar direla, eta hori zela salatu nahi zutena, eta horren aurrean gauza horiek jasotzeko beharra sentitu zutela, ez minik egiteko, ekarpen guztiak prozedurari lotuta daudela, muinean euren ekarpena Itziarko kontuak eta akats ortografiko pare bat izan zirela, eta aurretik kontrastatuz gero, ekidin ahalko ziren gaiak zirela. Izan ere, Itziarko biztanle batek eskuorria jasotzerakoan gaizki ulertuak egon daitezkeela, nahiz eta borondate onarekin egin izan, eta nahiz eta denon artean adostua izan zein eremutara finkatu ziren proiektuak. Eta berriro ere eurek kanpoan uzten duen modu bat erakusten duela, eta euren ustez hori ez da zuzena eta horrela adierazi behar dutela.

Eta bukatzeko adierazi zuen Aztikerrekin adostutako eskuorria Itziarko eremuan etxez-etxe ez banatzeak diskriminazioa sortzen duela debarrek bi mailetan banatzen dituelako.

Alkateak erantzun zion hori guztia bere iritzia zela eta azaldu zuela horrela jarduteko zergatia. Bestalde, Berme Batzordearen irizpideen inguruan, aipatu zela ondo legokeela onartutako irizpideak zeintzuk diren jakitea, baina irizpide horiek alderdi politikoen ordezkariak ez zutela jakingo, Berme Batzordeak hartuko zituen erabakiak eurenak izango direlako kanpoko inork parte hartu gabe. Udal gobernuak kideek ere ez dituztela ezagutzen irizpide horiek, eta Berme Batzordearen galbahea pasatuko duten proiektuak, horiek bai, igorriko direla dagokion Udaleko departamentuari.





2025SPLE0001  
1.bilera: OHIKOA 2025/01/30

Gilen Garciak adierazi zuen, hori horrela adostuta dagoela, baina euren ustez irispide horiek, Berme Batzordeak berak ezarriko baditu ere, egokia dela ordezkari politikoek irispide horiek ezagutzea, kontutan izan behar dela ordezkari politikoek sekretu betebeharra dutela eta ez duela irispide horiek zabalduko, baina, Berme Batzordearen funtzionamendu desegokiren bat-edo ez dagoela zaintzeko ardura dutela eta, horretako, irispideak ezagutzea egokia dela. Adostu zena izan zela Batzordeak ezarriko zituela irispideak, eta horretan ez dela sartuko, baina, inon ez zela jarri ez zituztela ezagutuko.

Alkateak erantzun zion Batzordearen galbahea pasatuko duten proiektuak Udaleko sail desberdinek aztertuko dutela, eta orduan bai, bermatuko dela proiektu horiek legea betetzen dutela, aurrekontura egokitutakoak direla berdintasuna bermatzen dutela eta abar. Horiek guztiak Udaleko teknikariek bermatuko dutela

Jon Riañok adierazi zuen irispideak aurrez ezagutuz gero proiektuen aurkezpena baldintzatu dezakeela.

Gilen Garciak gehitu zuen ez duela uste hori horrela izango zenik, baina asken finean, aholkularitzari planteatutako galdera bat dela, eta horiek emango dutela eruren iritzia.

Bozketa egin ondoren, Udalbatzak, aho batez, onartu zuen partaidetzazko aurrekontuetarako konpromiso politikoa.

## **6.- Onartzea, hala badagokio, lanpostuen zerrendaren eguneraketa.**

Alkateak azaldu zuen 2025eko aurrekontuak onartu zirenean konpromisoa hartu zela urtarrileko osoko bilkuran aurkeztuko zela lanpostuen zerrendaren eguneratzeko proposamena, gaur egun Udaleko dauden lanpostu guztiak jasotzen duen lanpostuen zerrenda.

Antolakuntza Batzordeak 2025eko urtarrilaren 20an eginiko bileran Udaleko lanpostuen zerrendaren eguneraketa proposatu zen, eta, aho batez, hiru gauza hauek onartu zirela: batetik, Udaleko lanpostuen zerrenda eguneraketaren aldeko irizpena eman zen; bigarrenik, proposamena Negoziazio Mahaian sindikatuekin negoziatzea adostu zen; eta, azkenik, Negoziazio Mahaian proposamena aldatzea erabakiz gero berriro ere Batzordera bueltatzea, baina, Negoziazio Mahian onespina lortuz gero, osoko bilkurari helaraztea, eta bertan onartu

Urtarrilaren 21an Negoziazio Mahaia bildu zela eta bertan lanpostuen zerrenda eguneratzeko proposamena onartu zela.

Ondoren proposamenaren xehetasunak azaldu zituen: hiru lanpostu amortizatzen direla, baina lanpostu horiek ez direla desagertzen, baizik eta izena aldatzen zaiela; eta beteta egon baina lanpostuen zerrendan agertzen ez diren lanpostuak sortzen direla.

Gilen Garciak azaldu zuen pozik zeudela egindako lanarekin, urtean zehar lanean jarraitzeko adostu zela eta horretarako eurek prest egongo direla, eta euren aldeko botoa izango zuela gai horrek.

Bozketa egin ondoren, Udalbatzak, aho batez, onartu zuen lanpostuen zerrendaren eguneraketa.

### **7.- Onartzea, hala badagokio, 2025eko udalbatzarren egutegia.**

Udalbatzak, 2023ko uztailaren 12an eginiko osoko bilkuraren bileran, erabaki zuen Osoko Bilkuraren ohiko batzarrak, hilabete bakoitzeko azken ostegunetan, 19:00etan, egitea.

Antolakuntza Batzordeak 2025eko urtarrilaren 20an eginiko bileran gaia aztertu zela, eta ikusita 2025ean apirileko azken osteguna Aste Santuko ondorengo pazko asteko osteguna dela, uztaillekoa eta abendukoa, berriz, jai eguna direla, proposatu zen apirilean Osoko Bilkuraren bilerarik ez egitea, eta uztailerako eta abendurako bileren egunak aldatzea, eta Antolakuntza Batzordeak horren aldeko irizpidea eman zuen, aho batez. Aldaketa horien ondorioz hau litzatekeela 2025erako osoko bilkuraren egutegia:

URTARRILA .....	2025/01/30, osteguna.
OTSAILA .....	2025/02/27, osteguna.
MARTXOA .....	2025/03/27, osteguna.
APIRILA .....	-----
MAIATZA .....	2025/05/29, osteguna.
EKAINA .....	2025/06/26, osteguna.
UZTAILA .....	2025/07/23, asteazkena.
ABUZTUA .....	-----
IRAILA .....	2025/09/25, osteguna.
URRIA .....	2025/10/30, osteguna.
AZAROA .....	2025/11/27, osteguna.
ABENDUA .....	2025/12/18, osteguna.

Bozketa egin ondoren, Udalbatzak, aho batez, onartu zuen 2025erako Osoko Bilkuraren egutegia.

### **8.- Eskari eta galderak.**

Alkateak galdetu zuen ea inork ba ote zuen eskaera edo galderarik, eta inork ez zuen eskaririk edo galderarik egin.

Bilera amaitu aurretik, alkateak adierazi zuen 2024ko abenduaren 19an eginiko bileran Gilen Garciak, EH Bilduko bozeramaileak, gogorarazi zuela herriko sarreran bi ikur kendu zirela, bata Udala UEMAKo kidea dela adierazten zuena, eta bestea, indarkeria matxistaren aurkakoa, eta horren harira esan nahi zuela asteartean, urtarrilaren 28an, berriro jarri zirela bi kartel horiek, Mendarotik Deban sarreran DEBA jartzen duen kartelaren ondoren, lehengo semaforoaren baino pixka bat lehenago.

Gilen Garciak, horren haria azaldu zuen Itziarretik jaitsita dauden kartelen batek Geoparkeko kartelean dagoela eta, berak inolako kontraesanik ikusten ez badu ere, eta euskarri gehiago jarri



DEBAKO UDALA

2025SPLE0001

1.bilera: OHIKOA 2025/01/30

gabe daudenak erabiltzearen alde badago ere, beste sarrerako kartelak kentzeko arrazoi nagusia hori izan zela aintzat hartuta, kartel horien kokapena ere aztertu beharko zela pentsatzen zuela.

Alkateak erantzun zion bera ere konturatuta dagoela horrekin, baina kexarik ez badago bertan uztearen alde dagoela.

Amaitzeko, Alkateak gogorarazi zuen hurrengo Osoko Bilkuraren ohiko bilera otsailaren 27an izango dela.

Besterik ez zegoenez, 19:50etan alkateak amaitutzat eman zuen osoko bilkuraren bilera.

Alazne Txurruka Allika  
Alkatea



Jose Luis Salaberri Iñarra  
Idazkaria

